

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, GIPUZKOAKO HONDAKINEN KONTSORTZIOAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2017.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko Bilkurak aho batez onartu zuen joan den urtarrilaren 25ean Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren eta bere sozietate publikoa den Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa SAUren kudeaketa ekonomiko eta finantzarioaren fiskalizazio txostena, 2017ko ekitaldiari dagokiona.

HKEEk **aldeko iritzia** plazaratu du bi entitateen kontuei dagokienez, nahiz unean uneko zenbait salbuespen azpimarratu dituen Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren kontuetan, izan ere Kontsortzioaren Egoeraren Balantzeak ez du ibilgetu materialean jasotzen Gipuzkoako Ingurumen Gunearen 1. fasearen emakidaren aktiboa eta emakidaberabakitik eratorritako finantza pasiboak; ez eta, Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketari egindako ekarpena ere. HKEEk ez du eskura izan Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketan inbertsioaren berreskuragarritasuna ebaluatzen duen analisia. Gainera, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak ez ditu Urteko Kontu Kontsolidatuak formulatu. Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketaren kontuei dagokienez, HKEEk ezin eman izan du eratorri finantzarioen kontzeptuan erregistraturiko pasiboaren zuzentasunaren gaineko ondoriorik, ez eta Ibilgetu ukiezinaren berreskuragarritasunari buruzkorik ere.

Bai Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak, bai Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketak zuzentasunez bere dute ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia, nahiz Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketan unean uneko akatsak azaleratu diren langileen alorrean (langileen birjartze-tasarentzat finkatutako mugak ez betetzea) eta administrazioko kontratazioaren alorrean (bi zerbitzuren esleipen prozeduran akatsak).